

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak enpresa batek bere balorezko proposamena egin dezan, hori bera bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak mantentzen dituzan eta, azkenik, diru-sarrerak sortuz dituzan egin beharreko jarduerak dira. Horrela banatzen dira funtsezko jarduerak: produkziozko jarduerak, arazo-konponketako jarduerak eta plataformako edo sareko jarduerak.

Gure kasuan funtsezko jarduerak desberdinak ditugu, adibidez: bezeroari gure zerbitzua helaraztea; bezeroaren eta jabearen komunikazioa bermatzea enpresarekin; komunikazio kanal hori mantentzea eta zaintzea; auto, motozikleta, autokarabana edo bestelakoak haren jabearen eskuetatik hartu eta bezeroarengana eramatea eta alderantziz; ibilgailu hauek egoera onean jaso eta entregatzen ditugula ziurtatzea...

Komunikazioari dagokionez, gure zerbitzuaren bidez bezeroekin izango ditugun harremanak webgune baten bidez bermatuko ditugu. Horren bidez bezeroek gure berriak izango dituzte, edozein momentutan gurekin kontaktatzeko aukera izango dute. Logikoa den bezala, bezeroekiko komunikazio-kanal hau zaindu eta mantendu behar da, horrek konfiantza handiagoa emango die, edozein unetan gurekin harremanetan jar daitezkeelako eta gure webgunean guri buruzko informazio guztia ikusi ahal izango baitute.

Ibilgailuaren lekualdaketa, hau da, hartzea bere jabeak gordeta duen tokitik eta bezeroari eramatea gure enpresan ezinbestekoa da, alderantziz ere. Horren ostean samurtasuna handiz ibiliko dira bezeroak, zeren eta, langileek bezeroa dagoen lekura eramango dute autoa beraren esku izan dezan. Modu honetan ibilgailuak egoera onean eta kalterik gabe entregatzen direla ziurtatzen dugu bi kasuetan. Hau garrantzitsua da, autoaren, motozikletaren... jabeak bere ibilgailua egoera onean jaso nahi duelako eta gure zerbitzuak erosten dituenak ere egoera onean nahi duelako bere beharrak asetzeko.